

## **USURBIL / Ekimen desberdinak izango dira liburutegian egunotan**

**Bihar arratsaldeko 18.00etan hasita ipuin kontaketa izango da 6 urtetik 8 urte bitarteko haurrentzat**

Azaroko datozen egunetan ekimen desberdinak aurrera eramango dira Sutegi udal liburutegian. Ipuin kontaketa, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunarekin lotutako erakusketa edota euskarazko II literatur topaketa izango dira datozen egunetan.

Bihar arratsaldeko 18:00etan Mikel Aiertza izango da liburutegian ipuin-kontari, Kontikan deituriko saioa eskainiz; saioa 6 urtetik 8 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduko zaie. Ipuin honek erregina izan nahi ez duen printzesaren istorioa kontatzen du; bere desioa betetzeko Kontikan izeneko mendian dagoen dragoi erraldoiaren lagunza izango du. Saio honen bidez, haur txikiei zoriontsu izatearen garrantzia transmititu nahi zaie.

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izendatua dago. Liburutegian ere gogoratuko dute egun hori azaroaren 20tik 27ra bitartean gaiaren inguruko dokumentu ezberdinekin erakusketatxo bat jarriz. Horrela bat egingo du liburutegiak Udaleko Berdintasun Sailetik antolatu dituzten ekintza ezberdinekin.

Azaroaren 25ean, astelehenez, arratsaldeko 19.00etan, euskarazko II literatur topaketa izango da (16 urtetik gorako irakurleei zuzendua).

Gidaria, oraingo honetan ere, Pako Aristi izango da, eta komentatuko duten liburua, Jon Arretxeren 19 kamera. Liburuaren ale ezberdinak liburutegiak eskuratuko ditu interesa duenarentzako; izan ere, liburua aldez aurretik irakurriz gero, etekin handiagoa ateratzen baitzaio topaketari. Parte hartzera animatu nahi ditu liburutegiak herritarak Hala bada, inolako konpromisorik gabe, liburutegiko harrera-gunean jakinarazi daiteke.

Aurrez esan bezala, azaroaren 25ean Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta ekimen desberdinak antolatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak. Azaroaren 23an, goizeko 9:00etan, indarkeri sexistaren aurkako mendi-martxa izango da Andatza Mendi Elkartea-rekin. Bordatxora mendi buelta egingo dute frontoitik irtenda. Ondoren, 12:00etan hamaitakoa izango da dema plazan eta jarraian hainbat herritarren eskutik ekimen artistikoa izango da dema plazan: bertsoak, dantzak, abestiak, antzerkia.

Hurrengo egunean, igandean, Ixabel Agirresarobek 'Emakume protagonistak' helduentzako bakarriketa eskainiko du Sutegi eraikineko auditorioan arratsaldeko 18:30etan hasita. Toti Martinez de Lezearen 'Urak dakarrena', Errose Bustintzaren 'Mañariko', R.M. Azkueren kontakizunekin eta beste herri ipuin batzuekin osatutako saio gazi-gozo entretenigarri bat eskainiko du.

Azkenik, azaroaren 25ean, astelehenean, Emakumeenganako indarkeriaren aurkako mural pintaketa herritarra egingo da arratsaldeko 17:00etatik aurrera.